

• ASTERO GAIA •

Umorea

Barrearen
iturriaren
bila...

alferrik

Oporren aurreko azken ARGIArako
bete ezineko erronka jarri genion
geure buruari: umoreari buruzko
erreportaje umoretsua idaztea, eta
gainera ona. Helburua lortu ez
dugulakoan, hona hemen emaitza.

Ea irailerako ahaztu zaizuen.
Bestela, Brasilen galdetu gutaz,
Alaskan egongo gara eta.

UNAI BREA



DANI BLANCO

EUSKAL HERRIAN umoreari buruzko aditu entzutetsu bat aurkitu nahi izan dugu, baina azkenean Kike Amonarrizekin mintzatu gara. Hasteko, galdera erraza: zer ote da umorea? “Hitz batean eta euskaraz laburbiltzekotan –erantzun digu sustoa pasatu zaionean–, aldar-tea esango nuke. Aldarte ona noski. Iruditzen zait bizitzaren krudelkeriari, zentzugabekeriari aurre egiteko modua dela, ikuspegi alai baina baita ere, batzuetan, kritiko batez. Ez da erraza umorea definitzea [bai, konturatu gara horretaz], zeren gainera aldatu egiten da. Aldatu egiten da denboran, aldatu egiten da herrialdetik herrialdera, eta aldatu egiten da pertsona bate-tik bestera”.

Amonarrizek gogorarazi digunez, Grezia klasikoko garaietatik egile ospetsu asko saiatu dira umorearen definizioa ematen, eta inork ez du lortu. Hala ere, mundutik ibiltzeko erabilgar-ri izan dakiguke honako hau: barrea eragiten duena da umorea, barre dosia, irribarre xume-tik algara geldiezinera, edozein dela. Amonarriz serio jarri da orde, ez digu hain erraz jarriko: “Umorearen eta komikotasunaren arteko bereizketa egin behar da”. Zerbait komikoa barrea eragiten duena da, barre ozena esan nahi baita. Norbaitek banana azala zapaldu eta lurrera jaustea, esaterako. Proposamen umore-tsuak ere algara eragin dezake, baina baliteke bestelakoa izatea helburua: ia igartzen ez den irribarretxoa eragitea, ezusteko atsegina ema-tea, kritika bat egitea...

Umorea zer demontre den jakin gabe segi-tzen dugu, baina behintzat konturatzen hasiak gara funtzio soziala izan dezakeela. Eta ez munta txikikoa, Amonarrizen esanetan. “Barrea eragiten diguna arau-haustea izaten da normalean, eta modu askotara hautsi daiteke araua. Esaterako, sintaktikoki, narrazioaren amaiera ustekabeko lekura eramanez”. Txiste esaten omen zaio horri, Kike. “Konparazio

Umorea fenomeno unibertsala da, baina aldatu egiten da kulturatik kulturara eta pertsonatik pertsonara. Afrikako !Kung herriak, adibidez, ez ditu fikziozko narrazioak ezagutzen; benetan gertatutakoaz baizik ez dute barre egiten. Izan ere, barre egiteko gaitasuna da unibertsala. Hura pizten duena, umorea alegia, oso lotuta egoten da tokian tokiko kulturaren ezaugarriekin, nahiz eta faktore unibertsal batzuk badiren. Eduardo Jauregui psikologoaren esanetan, oso jende gutxiarekin partekatu ditzakegun gauzak dira, hain zuzen, barre gehien eragiten digutenak.

baterako –jarraitu du entzungor–, azken bola-dan eman duten auto marka baten iragarkia: ‘Aizu, nondik joaten da Bilbora (hiri bat esatear-ren)?’. ‘Ikusten duzu auto gorri hori?’. ‘Bai’. ‘Ba nirea da; Bilbora handik joaten da (beste norabide bat adieraziz)’”.

Publizitate-etena baino lehenago esan nahi genuena, azken buruan, zera da: arau-haustea gauza askotarako erabil daiteke, auto asko sal-tzeko ez ezik. Gizartean indarrean dauden arauak are gehiago indartzeko, adibidez. Umore erreakzionarioaren helburua sistematik kanpo daudenak baztertzea izan da beti, Amonarrizek azaldu digunez (guri, geurez, ez litzaiguke buru-ratuko). Hor daude txiste arrazistak, sexistak, homofoboak, klasistak... Kontrako bidetik ere dezente ibiliak gara gizakiok, zer esanik ez. Boterea barregarri uzteko txisteez badakigu zerbait Euskal Herrian, edo bestela galde iezazioe Francori. Lasai, ez du erantzungo.

Arau-hauste sintaktikoak aipatu ditugu, baina badira beste mota askotakoak. Semanti-koak izan daitezke, edo absurduak, edo hiper-bolikoak, edo... Halako ur sakonetan murgil-tzen diren liburu asko dago, batzuk txistez hornituta, beste batzuk hileta baino serioago-ak. Abuztu honetan aspertzeko gogoia dauka-nak bibliografia gizen horretan aurkitu dezake modu bikaina. Kontua da, eta horretara iritsi nahi genuen, diziplina ugarik aztertu duela umorea: hizkuntzalaritzak, psikologiak, histo-riak... Azkeneko horri erreparatuko diogu, mito bat suntsitzeko balioko digu eta.

Euskal seriotasunaren genea

Hego Euskal Herriko biztanleok serioak gara, eta kito. Andaluziarrak, berriz, umoretsuak. Eta kito ere bai. Baina, seguru? Noiz eta nork eraba-ki du herri bat umoretsua ala serioa den? “Trudi-tzen zait hemen komunikabide sozialak gaztela-niaz hedatzen hasi ziren momentuan –dio

Amonarrizek—, umore eredu batzuk sustatu zirela *Espainia* ideia indartze aldera. Eta hori, une jakin batean, Andaluzia zen batez ere”. Hara nola ordura arte alaitasunaren eredu ginen euskaldunok serio bihurtu ginen. Bai, sinets ezazue: lehen herri umoretsua ginen, edo hala ikusten gintuzten behintzat. Jose Felix Díaz de Tuestaren *Euskal Herria atzerritarren abotan* liburuan badira adibide eder batzuk, guk hau aukeratu dugu: “Herrialde honetako jendea oso alaia da, espainiarren guztiz kontrakoa, espainiarrek ez baitute ezer egiten serioki ez bada. Euskaldunak beti ari dira txantxetan, barrezka eta dantzatzen, hala gizakumeak nola emakumeak”. XXI. mendeko umore *stablishment*-ari zuzenean eraso egiten dioten hitz horiek Andrea Navagliero politikari veneziarrak esan zituen 1528an. Badaezpada gaineratu dezagun urte bi lehenago Granadan egon zela, hau da, Andaluzian.

Gaia korapilatsuagoa omen da baina. Gure umorearen izaera da ezbaian dagoena, ez umorea bera: “Sanferminetara edo inauterietara datorrenak nekez esango du hemen umorerik ez dugula. Beraz, umore mota bat da epaitua, sustatu nahi den beste mota harekiko. Nik sarritan galdetzen dut: euskaldunok zein baino serioagoak gara? Eta zeintzuk dira gu baino umoretsuagoak? Galiziarrek, esloveniarrak, kurduak? Ez, andaluziarrak. Eta andaluziarrak baino ez. XIX. mendeko eraikuntza ideologikoa da hori”.

Umorea “kendu” ziguten, baina zer bait eman ziguten ordainetan: langile ospea, ordura arte ez omen geneukana. Baliteke hori hain txarra ez izatea, gure aditu partikularrak azaldu digun umorearen inguruko kontraesan honi begiratuta: “Itxura batean umorea gauza onekin lotzen da gizartean, baina pixka bat sakonduz gero ez da hala. Pertsona serioa ona da; beti umoretsu dabilena, ganorarik gabekoa iaia. Egoera batzuetan, lanean esaterako, ez da batere ondo hartzen umorea”. Pertsona umoretsua ez da fidagarria “kontu garrantzitsuak” tartean direnean, eta horregatik beharbada oso zaila da, esaterako, umorea maiz erabiltzen duten politikariak aurkitzea. Churchill izan zen salbuespenetako bat, eta haren izena gogora ekarri dugunez gero, ezin eutsi pasadizo hau idazteko tentazioari:

– Churchill jauna, ni zure emaztea banintz, pozoia jarriko nioke zure teari –esan zion behin kazetari batek.

Ziplo etorri zen lehen ministroaren erantzuna: – Eta ni zure senarra banintz, edan egingo nuke.

Umorearen teoria orokorrak

Badaezpada aurreko lerroko izenburutxoak irakurle guztiak uxatu ez dituen, jarrai dezagun. Hitz egin dugu txisteez, mintzatu gara etorri handiko politikari ingelesez, berba egin



A Z U
 R M E
 N D I



AZURMENDI JATETXEA
LEGINA AUZOA
LARRABETZU

944558866
www.azurmendi.biz

Umorearen mitoak

Bada barreterapia munduan behin eta berriz errepikatzen den esaldia: umeeek egunean 300 aldiz egiten dute barre, helduek hamabost besterik ez. “Datu hori guztiz asmatua da, mitoa da”, dio Eduardo Jauregui psikologoak, “eta badira gehiago; hedabideetan ondo ematen dute eta, frogatuta egon ez arren, medio batetik bestera igarotzen dira”.

Barreak osasunari ekartzen dizkion onurak ez dira esan ohi den bezain handiak, Jaureguiren ustetan. Ez da ikerketa gehiegirik egin gaiari buruz, eta inola ere demostratuta ez dauden ideia asko dabil hegaka. Egia da umorea mesedegarria dela gorputz nahiz gogoaren osasunerako. Barreak, esaterako, estresa gutxitzen du, eta eragin analgesikoa ere badu; barre egin ostean hobeto jasaten dugu mina. Baina hortik landa... “Azterketak egin dira barreak

bihotzari egiten dion onura neurtzeko, pertsona umoretsuak urte gehiago bizi direla frogatzeko edota barre egiteak sistema immunologikoa indartzen duela agerian uzteko, eta ez da ondorio garbirik aterata”.

Izan ere, umorearen eta osasunaren arteko harreman estatistikoa aurkitzeko egin den ikerketa handienak emaitza harrigarriak izan zituen. Zenbat eta umore gehiago, osasun kaxkarragoa eta bizitza laburragoa. Nola azaldu? Itxuraz, bai azterketa hartan bai beste batzuetan ere iker-tzaileek behatu egin dute pertsona umoretsuek jarrera “lasai” samarra dutela bizitzaren aurrean. Alegia, nahi dudana edango dut, erre egingo dut, gaixorik banago ez noa medikuarengana... Zertarako neure burua zaindu bizitzak lau egun baditu? Hala jokutzen duenak nahi beste estres gutxituko du barreari esker, baina...

dugu ondo pentsatutako iragarkiez, jardun dugu lurrean botatuko banana azalez... Baina horiek ez dira barrea eragiten duten gauza bakarrak. Umoreak milaka aurpegi ditu, kantuko borroeroak adina edo gehiago. Horiek guztiak teoria orokor bakarrean bildu nahi izan dituzte ikertzaile askok, batzuk Churchill bezain famatuak akaso, eta kale egin dute. Dagoeneko esanda genuen hau, ezta?

Umorearen teoria orokorrez gehiago jakiteko –gutxiago ezin– Eduardo Jauregui psikologoarengana jo dugu, eta beraz hari egotzi behar zaio hemendik aurrera egingo ditugun akats guztien errua. Curriculum ikaragarria aurkeztu digu Jaureguik. Apaltasun handiz adierazi digunez, bera da Espainiako Estatu osoan aditurik handiena umore kontuetan. Berarekin hitz egin eta gero, sinetsi egin diogu. Gaiari buruz idatzi eta guzti egin du: umorea aukeratu zuen doktorego-tesia egiteko gaia, eta horrekin konforme ez non-bait, *El sentido del humor* (Umora sena) irakurtzea beste erremediorik eduki ez dugun liburukotea argitaratu zuen 2007an. Aurrekoa gutxi balitz, Humor Positivo (webgunea daukate) izeneko kontsultoretzan egiten du eguneroko lana, eta umoreari buruzko dozenaka artikulua kaleratzeko gauza izan da, bilbotarra izan gabe ere.

El sentido del humor lanean, besteak beste, historian proposatu diren umorearen lau teoria orokor garrantzitsuenen berri ematen du Jaureguik, eta halako batean zirrikitu bat baliatzen du Bosgarrena emateko. Berarena, noski, zertarako bestela letra larria. Guztiz ezinezkoa izan arren, ahalegindu egingo gara lehenbiziko lauak labur-labur esplikatzen. Zer esaten duten, eta zertan egiten duten huts. Gero, Jaureguiri

Irudian, aurtengo Leioako Umora Azoka. Komikoak bide asko bila ditzake barrea sortzeko, baina beti arau-haustea izan beharko du oinarri. Arau-haustea, halere, indarrean dagoen araua gehiago indartzeko erabil daitezke, Kike Amonarrirek gogorarazi digunez. Hor dago umore erreakzionarioa, eta beraren txiste arrazistak, homofoboak, sexistak. Horiek ere herriaren baitatik sortuak, bide batez esateko.



INIGO AZKONA

utziko diogu Bosgarrena azaltzen, eta zergatik den onena esaten.

Nagusitasunaren teoria

“Nik zuri burua zapaltzen dizut, nik zutaz barre egiten dut”, izan daitezke teoria honen formulazio sinple samarra. Beste bat, apainagoa, hau da: “Barrea erasorako tresna da, besteen hanka-sartzeak, akats fisikoak edo zorigaitzak ikusten ditugunean sortzen zaiguna”. Hots, umoreak biktima behar du. Baina horrek ez ditu behar bezala azaltzen zenbait adierazpide umoretsu, hitz-jokoak edo umore absurdua

esaterako. Bestalde, benetan besteen gainetik gaudela sentitzen dugun uneetan ez dugu barrerik egiten, normalean. Jaureguik esan du azkeneko hori, guri ez ezer leporatu, otoi.

Inkongruentziaren teoria

Nagusitasunaren teoria zaharrena da, baina hau da ezagunena. Jaureguik oso hitz politekin esplikatzan du bere liburuan; hona itzulpen baldarra: “Elementu bateraezin bi edo gehiago modu desegokian elkartuta ikusteak eragiten digu barrea”. Adibidez, tabernara sartu den tipo batek honela diotso zerbitzariari: –Zenbat balio du kafe batek? –Euro bat. –Eta azukreak? –Hori dohainik da. –Orduan emadazu kilo bat mesedez.

Txisteen mekanismoa ondo argitzen du teoria honek, baina Nagusitasunarenak hobere esplikatzan dituen alderdietan egiten du huts. Ez du azaltzen, esaterako, zergatik egiten dugun barre opera kantari batek oso nota altua eman nahian huts egiten duenean.

Katarsiaren teoria

Freud izeneko psikiatra erdi-ezezagun bati zor diogu teoria hau, edo behintzat berak defendatu zuen sutsuen. Zioenez, txiste eta txantxek debekatutako gaiez hitz egiteko aukera ematen digute, eta era horretan askatutako tentsioek katarsia eragiten digute. Teoria hau ongi ezkontzen da barreak estresa gutxitzen dutela frogatu duten ikerketekin, eta gainera Freudena denez, dotorea da bera defendatzea. Baina baietz gure Jaureguik akatsen bat aurkitu: “Zein tentsio askatzen da hitz-joko batek edo lagun baten hanka-sartzeak algara eragiten digunean?”. Eta bakarria gelditzen zaigu.

Jokoaren teoria

Lau teoria nagusietan hau da plazaratu den azkena. 1902an, hain zuzen. Horrek ederki adierazten digu umoreari buruzko ikerketak puripurian daudela. Gogoraziko dizuegu teoriak dioena, dagoeneko egilearen birbilobak ere ez dira oroitzen-eta: umoreak lagundu egiten digu bizitzaren penak jasaten, mehatxuei garrantzia kentzen, zorigaitzaz iseka egiten. Teoria ona da umore kontzientea azaltzeko –txisteak, satirak, komikia, sketch-ak...–, baina ez bat-bateko umorea. Norbaitek banana azala zapaldu eta jaustean sortzen den algara, oraintxe bururatu zaigun adibide bat ematearren. Bestalde, Jokoa-ren teoriak ez du zehazten zerk eragiten digun barrea. “Gauza barregarriek sorrarazten digute barrea”, esaten du gutxi-gorabehera.

Eta bost: Teoria dramaturgikoa

Aurreko lau teorietatik bakarria ere ez da gai barrea eragiten duten gauza guztiak azaltzeko, temati errepikatzen ari garenez. Horregatik Eduardo Jaureguik, agidanez zeregin hoberik

gastelupeko HOTSAK
Errubel 23
30000 BILBAO
Tel.: +34 943 700114
Fax: +34 943 700137
gastelupeko@hotsak.com
www.hotsak.com

WWW.HOTSAK.COM

ESNE BELTZA
Made in Euskal Herria

Galdutako zubiak
Karmelo Lertxundi

KEMEN LERTXUNDI
Galdutako zubiak

OSTOLAZA ETA PUJANA
Lastur Bidean

MORAU TA AGOTAK
Kalamidadiak

KARELEAN
56. Gelatik



INIGO AZKONA



INIGO AZKONA

Goiko irudietan, aurtengo Leioako Umore Azokako bi une. Eduardo Jaureguiren umorearen teoria dramaturgikoaren arabera, barrea eragiten duena bizitzan antzeztan dugun pertsonaiari mozorroa eranstea da. Ezkerreko argazkiko komikoak ustez pertsona heldu bati ez dagozkion jarrerak agertzen ditu, eta hori da besteongan algara sortzen duena.

ezean, den-dena esplikatzan duen teoria sortzea beste burutaziorik ez du eduki. Teoria dramaturgikoa du izena, eta ez zaio batere makala atera egia esan, aurreko lauren sona ez duen arren, momentuz. Hitz egin dezala maisuak.

“Esaldi bakarrean bildu daiteke teoria: barrea eragiten duena beste aktore sozial batek bere rola ondo bete ez duen pertzepzioa da”. Ulertu dutenek zerbait hartzera joateko baimena dute, besteek, hau da, ia denek, hemen jarraitu behar-ko duzue denbora labur batez.

Itzul dezagun euskarara Jaureguik esandakoa. Ezer baino lehen, testuingurua behar dugu. Eta testuingurua Bizitzaren teoria dramaturgikoa da, izena ere ez dakigun kanadar psikologo batek sortua. Zera dio: denok gara aktore bizitzan, denok antzeztan ditugu eten-gabe gizarteak egotzi digun pertsonaia, edo guk geuk aukeratu duguna. Hori betetzen ez dugunean, alegia, gure pertsonaiaren mozorroa, nahita edo nahi gabe, eransten dugunean, barrea sortzen da.

Horrexek lotzen ditu, Jaureguiren aburuz, Kike Amonarrizen txisteak, banana zapalduta erreportaje berean hiruzpalau aldiz erortzeko gai izan den tipoa, Churchillren ateraldiak eta –esaterako– kilimak. Txisteen kasuan, mozorro galera fikziozkoa da, beste batzuetan egiazkoa, baina eragiten diguten erreakzioa berdina da.

Ez ditugu kilimak besterik gabe aipatu. Teoria gehienentzat oztupo handiena izaten dira, baina Jaureguik ez dio ezeri beldurrik: “Jende gehienak pentsatzen du kili-kilik eragindako barrea mekanismo automatikoa dela, baina ez da hala. Bestela, joan zaitez ezezagun batengana eta ezer esan gabe has

zaitez kilimak egiten, ea barre egiten duen”. Orduan?

Kili-kiliak gorputzaren atal bigunetan egiten dira, eta gorputzak badu horiek babesteko sistema, hori bai automatikoa. Ezagun batek kili-kilia egiten digunean, gure gorputza uzkurto egiten da erasoaren aurrean, baina gure gogoa berehala ohartzen da ekintza absurdua egin dugula: zertarako babestu erasorik egingo ez ligukeen –izan ere egin ez digun– lagunaz? Jende “normalak” ez du halakorik egiten. Hots, ez dugu gure pertsonaia ondo jokatu, eta horrek barrea dakar.

Non dugu umorea?

Neurologiaz ari gara orain. Umorea burmuinaren atal jakin batean dago “gordeta”? Ez jakin. Eduardo Jaureguik dioenez –horretan aditua ez dela aitortu eta gero–, umoreak garunaren atal desberdinak “pizten” ditu. Batzuk zaharrak, piztiak ginen garaitik heldu zaizkigunak. Beste batzuk berriagoak, piztiak eta kasik planetak akabatzen dituzten izaki arrazional bihurtzean sortu zitzaizkigunak. Ez dago ezer garbi, eta erreportaje hau irakurri ostean are gutxiago. Ikerketa (serio) baten arabera, Londresko taxi-gidariei neuronak hazten zaizkie orientazio espazialarekin zerikusia daukan garunaren alde batean. Baliteke umoreak egoitza nagusia edukitzea garuneko txokoren batean, eta baliteke komiko profesionaleri handitzea, baina hori ere, momentuz, ez dakigu. Sekula ez zizueten hain informazio gutxi emango sei orrialdetan! ■

www.argia.com/bideoak
helbidean, umoreari buruzko bideoa.